

Etxetik kanpo ikasten

Kaixo, Joseba! Zelan zabiltzate? Nik hilabete egin dut hemen, eta oraindik fundamenturik gabe... etxetik kanpo bizitzea ez da erraza... Aixxxx... Goizetan berandu esnatzen naiz, alarma jartzen dut egunero-egunero, e! Baina, badakizu... azkar-azkar gosaltzen dut, eta unibertsitatera joaten naiz. Eguerdietan ogitarteko bat jaten dut tabernan. Arratsaldeetan siesta egiten dut, eta, gauetan, bideojokoetan aritzen naiz pisukideekin, eta oso berandu joaten naiz ohera, ez dut ikasteko denborarik! Aixxx, martxa honetan, ez dut ezer gaindituko!